

## Sexu-hezkuntza integrala, antolakuntza zein eragin soziala, funtsezkoa Peruko Sexu eta Ugalketa Eskubideen hobekuntzan eragiteko

**Tokiko Erakundea:** [Manuela Ramos Mugimendua](#)

**Iraupena:** 2019 abenduak 31 – 2022 martxoak 31

**Zenbatekoa:** 580.676,71 €

**Finantziaketa:** [Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia](#)



### Helburua:

Peruko Lima, Ayacucho eta Ucayali eskualdeetan sexu eta ugalketa eskubideen, eta genero berdintasunaren defentsan laguntzea, batez ere prebentzioan eragiten, ESI (Educación Sexual Integral) hezkuntza eredu behar bezala ezarri eta eragin politikoa zein erakundeen arteko artikulazioa bilatuz.

### Laburpena:

Programa honek, Liman, Ucayalin eta Ayacuchon ematen diren indarkeria matxista kasu kopuru altuetan eragiteko estrategia oso bat jarri nahi du martxan.

Helburu horrekin, honako hau planteatzen da:

- Behar adina gaitasun eta tresna sortzea, eskualde bakoitzeko ikastetxeetan genero-ikuspegia, eskubideak eta kulturartekotasuna kontuan hartuta, sexualitatea, indarkeria eta genero-desberdintasuneko harremanak txikitatik ikusteko moduak, estereotipoak eta pertzepzioak aldatzen joateko.
- Eskualde bakoitzean, sozialki eta politikoki genero-ikuspegi batekin Sexu eta Ugalketa Eskubideen eta ESI (Educación Sexual Integral) hezkuntza ereduaren defentsan eragingo duen aliantza bat sortzea.
- Sexu eta Ugalketa Eskubideak eta genero-berdintasuna lantzen dituzten erakundeen aliantza nazionalak eta Latinoamerikako aliantzak indartzea.